

06/2014 UDALEKO OSOKO BILKURA

2014KO UZTAILAREN 28AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA:

Pedro M^a Estanga Lasa

ZINEGOTZIAK:

Izaskun Jáuregui Saizar
Aitor Gurrutxaga Aranzasti
Aratz Luisa Urkola
Maialen San Sebastian Kortajarena
Kepa De la Iglesia Sánchez
M^a Carmen Egurza Salaberria

IDAZKARIA:

Nekane Agirresarobe Etxeberria

Anoeta Hiriko udaletxean, 2014ko uztailaren 28an arratsaldeko seiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkate jaunaren Lehendakaritzapean eta alboan adierazitako zinegotziekin; Josune Eizmendi Manterola zinegotzia ezin etorria adierazi du oportretan izateagatik eta Mikel Ayerbe Gallurralde lanarengatik eta Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea, Idazkari lanetan aritu naiz.

1.- 2014KO MAIATZAREN 26EAN OSPATURIKO AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2014ko maiatzaren 26ean ospaturiko akta irakurri eta aho batez onartuak izan dira.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2014KO MAIATZAREN 16TIK UZTAILAREN 16A BITARTE, 262 ZENBAKITIK 344 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

2014ko maiatzaren 16tik uztailaren 16a bitarte, 262 zenbakitik 344 zenbakira biak barne, bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, Korporakideek jakinaren gain geratuz.

3.- ESTATUKO ADMINISTRAZIOA UDALBILTZAREN AURKA TARTEKATURIKO ERREKURTSOAN EAEKO AUZITEGI NAGUSIA ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALAK EMANIKO 254/2014 SENTENTZIAREN BERRI EMATEA.

Ikusirik 599/2002 Prozedura Arruntean, EAEko Auzitegi Nagusia Administrazioarekiko Auzien Salak emaniko 254/2014 zenbakia duen sententzia:

Demandatzailea: Estatuko Administrazioa.

Demandatua: Udalbiltza Partzuergoa.

Beste Demandatu batzuk: Beste Udal batzuk.

Gaia: “Udalbiltza “ Parzuergoaren Kontseilu Orokorraren erabakia, GAO an 2012ko otsailaren 15ean argitaratua, zeinetan, “Euskal Garapen Koexio Fondo” Organismo Autonomoaren Estatutuak onartu ziren.

eta bertan ondorengo **EPAIA** ematen dena, Korporakideek jakinaren gain geratuz:

“Que debemos desestimar y desestimamos el recurso contencioso-administrativo presentado por la ADMINISTRACION DEL ESTADO contra el acuerdo del Consejo General del Consorcio “Udalbiltza”, publicado en el B.O de Gipuzkoa de 15.02.2002, que aprobó los estatutos del Organismo Autónomo “Euskal garapen eta kohesio Fondoa”; sin imposición de costas”.

4.- ANOETAKO UDALA ETA BIDEGI, S.A-REN ARTEAN, UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO LANKIDETZA-HITZARMENA ETA DAGOKION ERANSKINA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Anoetako Udala eta Bidegi, S.A-k, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia, Udal erroldaren datuak egiaztatzeko lankidetzaz hitzarmena eta dagokion eranskinaren espedientea ikusi da.

AOTaren txostena ikusi da.

Partaideek aho batez erabaki dute:

Lehena.- Anoetako Udala eta Bidegi, S.A-k, Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia, Udal erroldaren datuak egiaztatzeko lankidetzaz hitzarmena eta dagokion eranskinaren onestea akta honi 1 eranskin modura atxikita jasotzen den agiriaren arabera; ohartaraziz udalak eman beharreko pertsonal datuak, titularraren baimenarekin soilik erabiliak izango dira, hitzarmen eta eranskinaren adierazten den moduan. Titularraren baimena izan ezean, erroldaren datuen erabilera nulua izango da.

Bigarrena.- Pedro M^a Estanga Lasa alkateari edo bere legezko ordezkariari ahalmena ematea akordio hau burutzeko beharrezkoak diren agiri publiko edo pribatu guztiak sinatzeko.

Hirugarrena.- Akordio honen berri Bidegi, S.A, Gipuzkoako Azpiegituren Agentziari ematea.

5.- ANOETAKO HERRI BARATZEN EMAKIDA ETA ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONESPENA.

Anoetako Herri Baratzen emakida eta erabilera arautzen duen Ordenantza onesteko , udal ingurugiro departamentuak aurkezturiko proposamena ikusi ondoren.

Udaleko AOTren txostena ikusi ondoren

Partaideek aho batez erabaki dute:

Lehena.- Behin behineko izaeraz, Anoetako herri baratzen emakida eta erabilera arautzen duen ordenantza onestea, akta honi 2 eranskin modura atxikita jasotzen den agiriaren arabera.

Bigarrena.- Aurreko atalean hartutako akordioa 30 laneguneko epez jendaurrean jartzea, berarekiko aurkez daitezkeen erreklamazio edo oharpenetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu ez bada, onarturiko erabakiak behin betiko izaera hartuko du, onespren berri baten beharrik izan gabe.

Laugarrena.- Behin betiko akordioa eta ordenantza osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

6.- 2014 AURREKONTU OROKORRA, AURREKONTUA GUZATZEKO ARAUA, UDALEKO PLANTILA ORGANIKOA ETA LANPOSTU ZERRENDA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2014 urteko Aurrekontu Orokorra ikusirik.

2014ko Aurrekontuak egikaritzeko Araua ikusi ondoren.

2014 ekitaldirako Plantilla Organikoa eta Lanpostuen zerrenda ikusi ondoren.

2014ko uztailaren 2an eginiko Ogasun Batzorde Informatzailearen diktamina ikusi ondoren.

Udaleko idazkari kontu-hartzaileka egindako txostenak ikusi ondoren:

- Ekonomiko finantzarioa
- Aurrekontu egonkortasunaren eta finantz iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa.
- Espedientearen tramitazioa
- Plantilla Organikoa eta lanpostuen serena

-
Alkateak Aurrekontu osoaren berri eman ondoren bozketara eraman du ondorengo emaitza lortuz:

Aldeko botuak: BOST (Bildu talde politikoarenak)

Aurkako botuak: BAT ERE EZ

Abstentzioak: BI (EAJ talde politikoarenak)

Beraz, bozketaren emaitza ikusi ondoren erabakitzen da:

Lehena.- 2014 ekitaldirako Udalaren Aurrekontu Orokorra onestea, kapituluka honela laburbilduz:

Sarrera egoera:

Kapituloa	Izena	Euro
1	Zuzeneko zergak	560.100
2	Zeharkako Zergak	66.500
3	Tasak eta bestelako sarrerak	362.900
4	Transferentzi arruntak	1.152.700
5	Ondare-sarrerak	35.300
6	Inberts. Erreal.besterenganatzea	2.103
7	Kapital Transferentziak	213.600
8	Finantza aktiboak	59.880
9	Finantza pasiboak	156.236
GUZTIRA SARREREN AURREKONTUA		2.609.319

Gastuen egoera:

Kapituloa	Izena	Euro
1	Pertsonal gastuak	737.557
2	Ondasun arrunt eta zerb. erosketa	584.730
3	Finantza gastuak	12.300
4	Transferentzia arruntak	511.091
6	Inbertsio errealak	529.155
7	Kapital trasferentziak	0
8	Finantza-aktiboak	60.486
9	Finantza-pasiboak	174.000
GUZTIRA GASTUEN AURREKONTUA		2.609.319

Bigarrena.- 2014 urteko Udalaren Aurrekontua gauzatzeko Araua onestea.

Hirugarrena- 2014 urterako ondorengo Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrenda onestea:

1.- 2014. URTERAKO PLANTILA ORGANIKOA

A) KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATURIKO POSTUAK

a) Gaikuntza Nazionaleko eskala

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera
1.- Idazkari--Kontuhartzailea	1	A1/A2	J

b) Administrazio Orokorreko eskala

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera
1.- Administrazio Orokorreko teknikaria	1	A1	J
2.- Administrataria	1	C1	J
3.- Administrari laguntzailea	2	C2	H

c) Administrazio Bereziako eskala

- Azpieskala teknikoa

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera	Jarduna
1.- Aparejadorea	1	A2	H	% 68,6
2.- Gizarte Langilea	1	A2	H	% 60
3.- Hizkuntza normalkuntzarako teknikaria	1	A2	H	% 60
4.- Kultur Dinamizatzailea	1	A2	J	
5.- Liburutegi arduraduna	1	C2	H	% 52

- Azpiekala Zerbitzu Bereziak

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera
1.- Zerbitzu anitzetako ofiziala	1	C2	J

B) LAN HITZARMENDUN LANGILEAK

Lanpostuaren deitura	Kopurua	TALDEA	Egoera	Jarduna
1 Kale garbitzailea	1	E	E.K	
2 Eraikin garbitzailea	2	E	H	1 jarduna % 57
3 Zerbitzu anitzetako peoia	1	E	F	
4 Eraikinen mantenua	1	C2	E.K	
5. Aparejadorea	1	A2	Desagertzeaz	
6. Euskara Teknikaria	1	A2	Desagertzeaz	

C) ALDI BATERAKO LANALDIETARA GORDETA KO POSTUA

Ez dago

EGOERA

J: Jabetza

F: Behin betiko

H: Bete gabe

E.K: Errelebu kontratua

2.- ANOETA KO UDAL EKO 2014. URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

A) Karrera ko funtzionarioentzat erresebatutako lanpostuak

DEITURA	LANP. KOPU.	ORDAIN OSAGAI AK		TALDEA	ESKALA	AZPI ESKALA	HIZKUNTZA ESKAK.		BET. ERA	E.TIT	DED %.	BALDIN. ESPECIF
		DESTINU	ESPEZIF				KOEF	DER.DAT				
Idazkari-Kontuhartz.	1	20	19.753	A1/A2	GN	IK	4	94.XII.31	L	1/2	100	
Administr. Orok. Teknikaria	1	21	13.413	A1	AO	T	4	06.II.16	LO	1	100	
Aparejadorea	1	19	12.800	A2	AB	TB	3	02.XII.31	LO	3	68,6	
Gizarte langilea	1	17	7.341	A2	AB	TB	3	92.XII.31	LO	3	60	
Hizkuntza Nor.tek	1	17	5.796	A2	AB	TB	4TG	---	LO	3	60	
Kultur dinamizatz.	1	17	8.640	A-2	AB	TB	3	00.XII.31	LO	3	100	
Administraria	1	14	13.336	C1	AO	AA	3	94.XII.31	LO	4	100	
Administr. Lagun.	2	11	12.179	C2	AO	AL	2	92.XII.31	LO	5	100	
Liburute gi ardurad	1	14	5.159	C1	AB	AA	3	92.XII.31	LO	4	52	
Zerb. Anitz. Ofiziala	1	12	15.203	C2	AB	ZB	2	94.XII.31	LO	5	100	% 15

B) Lan—hitzarmendun langileentzat erresebatutako lanpostuak

Lanpostua	LANP. KOPURUA	ORDAIN OSAGAI AK		TALDEA	HIZKUNTZA ESKAK.		BETERA	E. Tit	DED.%
		DESTINU OSAG.	OSAG. ESPEZIF		KOEF	DER. DATA			
Kale garbitzailea	1	8	11.068	E	1	09.XII.31	LO	6	100
Eraikinen garbitzailea	1	8	11.068	E	1	92.XI.31	LO	6	100
Eraikinen garbitzailea	1	8	6.309	E	1	08.XII.31	LO	6	57
Zerbitzu anitzetako peoia	1	8	11.068	E	1	00.XII.31	LO	6	100
Eraikin Mant. Ofizial Maisu	1	11	14.573	C2	1	07.V.09	LO	5	100
Aparejadorea	1	19	12.800	A2	Desagertze ar				
Euskara Teknikaria	1	17	5.796	A2	Desagertze ar				

KLABEAK

TALDEA EDO ESKALA

GN GAIKUNTZA NAZIONALA
AO ADMINISTRAZIO OROKORRA
AB ADMINISTRARIO BEREZIA

AZPIESKALA

IK: IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA
T: TEKNIKARIA
TB: ADMINISTRAZIO BEREZIKO TEKNIKARIA
AA: ADMINISTRARIA
AL: ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA
ZB: ZERBITZU BEREZIAK

PROBISIO ERA

L LEHIAKETA
LO LEHIAKETA-OPOSAKETA

ESKATURIKO TITULUA:

TITULAZIOA

1. LIZENTZIATURA
2. ZUZENBIDEA 3.MAILA, SOZIOLOGIA EDO EKONOMI-ZIENTZIAK
3. UNIBERTSITATEKO DIPLOMADUNA, ARKITEKTO TEKNIKOA.
4. BATXILERGOA, LANBIDE HEZIKETA 2. MAILA EDO BILIOKIDEA.
5. ESKOLA GRADUATUA, LH 1.MAILA EDO BALIAKIDEA.
6. ESKOLA AGIRIA

Laugarren.- Hasierako izaeraz onetsi den Aurrekontu Orokorra, Plantilla Organikoa eta Lanpostu zerrenda, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean dagoen legediak agintzen duena bezala.

Aurrekontu Orokorra jendaurrean aurkezturik dagoen epealdian inolako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko izaeraz onetsita geratuko da, eta Gipuzkoko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da berriro, kapituluz-kapitulu laburturik.

Bostgarren.- Aurrekontu Orokorra, behin-betiko izaeraz onetsirik, eta Plantilla Organikoaren eta Lanpostu Zerrendaren kopia bana, Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, dagokion departamentuetara.

7.- GALDE-ERREGUAK

EAJ talde politikoko bozemailea den Kepa De la Iglesia Sánchezek adierazpen hau egin du:

Duela gutxi “Udalaren domeinua.eus” gaiari buruzko mozio bat aurkeztu dutela udal erregistroan eta harritu egin dela gai-zerrendan ez ikustean.

Alkateak erantzun dio udalari zerbitzua ematen dion informatikariarekin ari direla gaia aztertzen eta gutxi barru jakinaraziko duela zein den gobernu taldearen proposamena.

Jarraian, alkateak adierazi du duela egun batzuk udaleko oposizioak kritika bat argitaratu duela prentsan, gobernu taldeari egindakoa zaborren kudeaketa dela eta. Alkateak, honen

aurrean, bere harridura adierazi du, gaia aztertu den batzorde guztietan azpimarratu duelako edozein zalantza argituko zuela eta inoiz ez dutelako galderarik egin, ezta azalpenik eskatu ere; ezkor adierazi du harrituta dagoela galderak eta argibide-eskaerak prentsa bidez egitearekin.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak direnean; guzti honetaz, nik Idazkariak, fede ematen dudalarik.